



MARTÍNEZ, Josu

Gure (zinemaren) Sor Lekua. Euskarazko lehen filmaren aurkikuntza, historia eta analisia

Bilbo : Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen

Zerbitzua, 2015

446 or. : ir. ; 21 cm

ISBN: 978-84-9082-153-4

Euskaraz egindako lehenengo filmaren inguruko doktorego tesi batetik jaiotako ikerketa liburua da eskuartean duguna. Ikerketatik haratago, jakin-minez eta gogoz jorratutako lana da, gainera. Narratibaren ikuspuntutik, bilaketa prozesua bera (ezin aipatu gabe utzi “Gure Sor Lekua” ikus-entzunezkoa erdietsi eta deskubritu zueneko) protagonista bihurtzen du, ohiko metodologia kanonikotik urrunago, ikerketa beraren kontaketa bizia egiteraino. Liburu irakurterraza da, ikerketa beraren sekretu eta deskubrimenduak partekatzen dakielako, filma osatu, eratu eta hezurmamitu zeneko garai hura girotzeraino.

Zinema ikerketen tradizioan, ikerketa semiotikoen (gurean Santos Zunzuneguiaren eskolaren gidarizapean) edo-eta *Cultural Studies* delakoen bidetik, testu analisi zorrotzak egiteko tradizioa egon badago gure artean, baina gero eta ohikoagoak dira bio-filmografia delakoak jorratzea. Hau da, egile bakarra aukeratu eta haren ibilbide profesional edo personala uztartzea, alegia, bere ekarpenaren zio eta ondorio sakonagoak bilatze aldera. Bide horretatik jorratu dira Pedro Oleari edo Julio Diamanteri eskainita EHU-n egin diren ikerketa lanak. Eskuartean dugun liburuari erreparatuz, Josu Martinezen ikerketa lanak berezitasun propioak zituen: bilaketa prozesuak eragindakoak. Metodologia aldetik eskertzekoa da testuinguruari egiten zaion aipamena, analisi historikoa txertatuz eta kulturaren soziologia delako tresnak erabiliz. Gaian adituan ez den irakurleak eskertuko du hurbilketa hori.

Illo horretatik begiratuta, Josu Martinezen ikerketa eremua oso zehatza da. Batetik, egile edo eragile bakarra zuen eta bestetik, obra bakarra edo nagusia, behinik behin. Gal-dutzat ematen zena, gainera. Ez zen harritzekoa abenduaren 3an, Euskararen Egunean, aurkeztea tesia jendartean. Gainera eguna borobiltze aldera, aurkeztu egin zuten publiko aurrean euskarazko lehenengo filma, apropos egun horretarako sortutako musikaz alaiturik estreinaldia, soinurik gabe topatu baitzuten kopia.

Laburbilduz, liburua hiru ataletan banatuta dago. Sarreran, lehen urratsen berri ematen du, eta *Gure Sor Lekua* dokumentala aipatu zuten euskal zinemaren inguruko erreferentziako bi lanak jasotzen ditu: Santos Zunzuneguiaren *El cine en el País Vasco* eta Jose Maria Unsainen *El cine y los vascos*. Horietan, nabarmendu egiten dute 50eko hamarkadako “basamortu kulturalen” lan bakanetakoa zela aipatu lan hori. André Madré, Hazpamen jaiotako jenerala, hain zuzen, zegoen proiektu horren atzean. Aipatzekoa da Eusko Ikaskuntzareren *Ikusgaiak* aldizkarian argitaratutako artikulua: Juanmi Gutierrezen “Cine documental vasco: conservando la memoria colectiva” (2001), bertan sakontzen baita lehenengo aldiz euskarazko film horren berezkitasuna.

Josu Martinezek *thriller* tratamendua ematen dio bilaketerari, ezustekoen eta bisitatutako artxibategien berri emanez, eta tesi batean ohikoa ez den bizitasunarekin, 2012ko Gabonetan Madame Madrék *Gure Sor Lekuaren* kopia berarekin zuela adierazi zien momentua kontatzen du. Soinurik gabeko kopia jaso zuten, eta momentuz horixe da eskura dagoena. Hortik aurrera, iker-galdera batzuk iradokitzen ditu: ba al dago Euskal Herrian edo munduan barrena egon daitekeen bigarren kopia bat? “Erbiaren harrapaketa” azpisailean aurrera emandako bilaketen eta estrategien berri ematen du. Prentsan iragarkiari jarri zituzten

eta Frantziako telefono-listinetan izen horrekin agertzen ziren hiritar guztiei (30 inguru) gutun bat bidali zieten. Bertan ikerketa bat egiten ari zela adieraziz gutun bat bidali eta azkenean jaso zuten erantzuna.

Liburuaren lehenengo atalean, André Madrék ezagutu zuen Euskal Herria nolakoa izan zen azaltzen du Josu Martinezek eta haren balizko biografia osatzen saiatzen da. André Madré, Hazparneko semea, Mendebaldeko Afrikako Aireko Armadaren buru izandako sei urtetan, Euskal Herriaren enbaxadorearen antzekoa izan ei zen Josu Martinenezek arabera. Gerrian izan zuen parte hartzea ere zehatz mehatz bistaratuko du, jenerala izateaz gain, koronela, kapitaina eta hegazkinlaria ere izan baitzen, karrera militar gorena izateraino. Bere heriotza, berriz, nahiko oharkabea pasatu zen, bere aberri bikoitzaren seinale. Azkenik, Hazparneko kanpionsantuan ehortzi zuten.

Biharren atalean, berriz, Euskal Herria historikoki zinema dokumentalean nola eraiki den aztertzen du ikerketak. ETBren sorrera jartzen du mugari eta zinema nazionalaren kontzeptuari eusten dio. Urteetan, eta bereziki 80 hamarkadako euskal zinearen loraldia eta gero, eztabaida iturri izan da euskal zinemaren afera. Horren ildotik, hiru pentsamendu ildo nagusi asebetetzen ditu: euskal zinema euskarazko zinemarekin lotzen duena (Antton Eceiza); euskal tempoari eta estetikari lotuta egon den zinea (*Ama Lur* kasu) eta irizpide ekonomikoetara egokituta, EAEn ekoizten dena (Angel Amigo produktorearen ikuspegia, esaterako). Euskal Herriari buruzko film dokumentalen tartean, abiapuntua *Eusko Ikusgayak* (1922) izango da, zabalkundea nahiko urria izan bazuen ere, Eusko Ikaskuntzaren ekitaldiei lotuta batik bat. Ezagunagoa da *Euzkadi* (1933) lana. Lan horren ildotik, Aitzolek berak abertzaletasuna zabaltzeko bide paregabea zela idatziko du. Lau urte beranduago, *Guernika* (1937) lana aurkeztu zuten, baseria euskal nortasunaren metafora gisa agertuz. Euskaltasunari egin zaion nazioarteko ekarpen nabarmenen artean kokatu beharko genuke *The Land of The Basques* (1955), Orson Welles maisuak sinatutakoa. Telebista kate batentzat, ITV katearentzat alegia, egin zuen eta 40 minutu luze irauten du. Gure artean, Fernando Larrurquertek eta Nestor Basterretxeak *Ama Lur* erdietsi zuten. Crowdfunding bogan dagoen egunotan, finantza-bide herritarra eta parte hartzailea sustatu zuen filmak. Ikuskek, hau da, Antton Eceiza buru zela euskal iruditeria eta zinema berritzeko zine nazionala egiteko saiakerek, bizimolde tradizional eta modernoak irudikatu zituzten.

Hirugarren atalean eusten dio euskarazko lehen filmaren analisiari, soinua galdutzat eman bada ere. 1956ko uztaillean estreinatu zen *Gure Sor Lekua*. Une hartan ekitaldi go-goangarria izan bazen ere, ahanzturan eroritako filma izan da, hariak eta ikerketa honek biziberritu arte. Martinezek onartzen du Madréren filma ez dela ekimen original bat, komunikabideen bitartez diasporarengana iristeko saioak ugariak izan baitira. *Euskal kausari* egindako ekarpen personaltzat joko du ikerlari gazteak, euskarazko filma eta euskaldunen-tzako filma dela nagusituz. Ezin deigarriagoak dira lehenengo irudiak: txori bat bailitza aitretik hartutako irudiekin hasiko da. Analisia egitea, soinuaren faltan zaila dela jakinik, izandako harrerari errepikatuko dio. Hala, ondorioztatzen du euskarazko film baten aurkezpen mundiala zela nabarmendu arren, egunkarietan ez zuela bereziko presentziarik izan. Hala ere, kronikei begira, publikoak harrera bikaina egin omen zion filmari. Laugarren atala ere izango du liburuak beste zenbait aurkikuntzei eskainia. Izan ere, André Madrérekin lotura duten ikus-entzunezkoak ere topatu ditu.

Testuinguruak testuinguru, Josu Amezaga tesi zuzendariaren gidaritza nabari da nortasuna eta kulturaren aldagaiak barneratzen baitira, frantses nazioaren eraikuntzaren barnean akulturazio prozesua azpimarratuz. Eta horrekin batera paradigma eta norabide berrien erroteak gailenduko dituzte: eliteen jokamoldea; turismoaren agerpena; Elizaren jarrera aldaketa edo eskola. Euskal nortasuna iraganarekin lotzen hasten dela azpimarratzen du egileak XX: mende hasieran, pizkunde kulturalak tarteko. Hazparne bera, Madré beraren sorlekua, herri euskalduna eta girstinoa izan zen.

Doktorego tesi honen ekarpena aintzat hartzeko, kontuan hartu behar dira tesi-defentsan Santos Zunzunegui katedradunak esandako hitzak. Berak bereziki 80. hamarkadan idatzitako testuak berrikusteko unea heldu zela adierazi zuen. Egia esan, aipagarria da azken urteotan Euskal Herriko unibertsitateetan euskarazko zinemaren inguruko ikerketak izan

duen bultzada. Miren Maniasen doktorego tesiak, adibidez, euskarazko luzemetraien produkzio testuinguruaren mugariak aztertu ditu eta Andres Gostin (Mondragon Unibertsitatea) euskarazko filmeetan indarkeria politikoak izan duen adierazpidea ikertu du. Beñat Doxandabaratx ikerlariak ere euskal zinemaren inguruan ikertu eta egingo du gogoeta bere doktorego tesian. Euskal Herriko Unibertsitateko Nor ikerketa taldearen baitan egin dira aipatu ikerketa lan gehienak, euskal zinemaren inguruan zer esan badagoela argi lagaz. Ikerketa loraldi honen inguruan nabarmentzekoa da Eusko Ikaskuntzaren baitan sortutako Ikusgaiak aldizkaria (8. aldizkaria duela gutxi atera zen). Hortaz, Josu Martinezen tesi honen proposamena uzta eder baten barruan kokatu beharko litzateke.

Liburu bidaiari (azken orrietara begiratzea besterik ez dago bisitatutako artxibategien zerrendaz jabetzeko) eta ongi uztartutakoa da, eta ezohikoa. Gutxitan azaldu baitira halako deskubrimenduak giza zientzien atalean. Lan horren atzean, familia baten testigantza ere badago, izan ere oraindik orain zinemaren lehenengo urratsen dokumentu asko etxeko apaletan baitaude fimategietan egon beharrean. Madréren familiak paper nabarmena izan du, eta Josu Martinezen konplizitatea jaso du. Liburu horren bitartez, zinean aditua ez den irakurleak aukera izango du garai zehatz batean personaje batek ereindako bidea ulertzeko. Bidai erromantiko zein akademiko honetan, non Ipar Euskal Herriko euskalgintzaren azken hamarkadetako historia ere azpimarratzen den, nabarmentzeko modukoa da, esaterako, Jean Elizalde Zerbitzari azkaingar idazle, apez eta euskaltzainaren papera. Hala, ikerketa-bidaia honetan Argentinatik ere igaro ziren, bazekitelako filma herrialde hartako euskal etxetan pasa zela, André Madré berak, 1963an, jubilatu eta berehala hara joan zelako. *Gure Sor Lekua* filmak bidaiatzen jarraitu zuen, baita Ameriketako Estatu Batuetan, lana estreinatu zen garaian puri-purian zegoelako Ipar Euskal Herriko Kaliforniarako emigrazioa. Eskertzekoa da Josu Martinezen ahalegina eta jakin-mina ikergaiarekiko. Aipatzeko modukoa da nola biltzen duen Kalifornian bertan filma ikusi zuen gizon baten testigantza.

Eskertzekoa da, esan bezala, eskuan dugun liburu honek lehenengo euskarazko filma sortu zeneko testuinguru soziokulturala argitzea. Aurrez, zinearen jatorri eta lehenengo obren inguruko jarrera opakua argitzen ere beste asko saiatu izan dira. Ezin izendatu gabe utzi Jean-Claude Seguin eta Jon Letamendiaren lanak. *La cuna fantasma del cine español* lanean, esaterako, ezbaia jarri zuten Espainiako lehenengo obratzat hartua izan den *Salida de misa de doce del Pilar de Zaragoza* (1896 urtean egin beharrean hiru urte beranduago errodatu ei zuten), zinearen historia bera ere Gerra Zibilaren karietara, berridatzi egin baitzen garaileen interesei men eginez, zine historiagileen lana desbideratuz. Horregatik dira beharrezkoak lan horiek, besteak beste gure kultur produkzioaren uztaren jatorria eta testuingurua uler dezagun. Orain arteko ikeketa askok, zinematografiaren jatorrian oinarritu dira, baina garrantzitsua da filmen corpusa ere egituratzea eta lehenengotzat jo den euskarazko obra hau ere gure artean eduki eta aztertzea. Ikerketa askok Estatu espainiarrera Lumiéren lehenengo gailuak noiz etorri ziren aztertu izan dituzte, eta Josu Martinezek kontuan hartu du Ipar Euskal Herriko kultur loraldia, lurralduteasun kontzeptutik haratago, euskarazko lehen filma bertan sortu zela argitzeko.

Merezi du arreta jartzea Letamendiak egin izan duen lan historiografikoan, faltsifikazioz jositako datuak kontrajarriz. Gogora dezagun *La cuna fantasma del cine español* lanean Juan B. Heinik sarreran idatzitakoa: "Cobardía cómplice la de aquellos que conociendo la verdad y pudiendo hacer oír su voz, se callaron. Cobardía cómplice de los historiadores que NS/NC (no saben, no contestan)... Cobardía, fraude, chulería, prevaricación, prepotencia, estupidez, aldeanismo cazarro, fascismo puro y duro". Martinezen tonua oso bestelakoa da. Deskubrimendu baten aurrean dago, eta idazketa alai eta gozagarri batean, konpartitu egiten du.

Beste liburu batean¹, *Place du Port à Barcelone* obra azpimarratzen du Letamendiak. Gainera, Seguin eta Letamendiak ohartarazten dute azkar etorri zela zinematografoa

1. LETAMENDIA Jon eta Seguin Jean-Claude (Leire Ituarteren laguntzarekin, 1998). *Los orígenes del cine en Gipuzkoa y sus pioneros*. Donostia: FilMOTECA vasca-Euskadiko Filmatagia.

Donostiara, 1895ean, hain zuzen, Edisonen gailua. Kinetofonagroa izan zen hiritar bakoitzak ikus zezakeen aparatua, eta sekulako zalaparta sortzen hasi zen bertako bisitari, herritar eta aristokraten artean.

50. hamarkadako Euskal Herriaren egoera oso bestelakoa zen: euskal filma eta euskaldunentzako zela argitzen du Martinezen iker-lanak. Horren arabera, Madrék idatzitakoei eta prentsan argitaratutakoei erreparatu ezker, *Gure Sor Lekuaren* xede nagusia ez zen euskara zinemara ekartzea, euskal filma bat egitea baizik.

Gure (zinemaren) Sor Lekua. Euskarazko lehen filmaren aurkikuntza, historia eta analisia (EHUko Argitalpen zerbitzua) lana ezin interesgarriagoa da euskal kulturaren haize iparra askotan Iparraldetik etorri dela gogoratzeko, *hegoaldezentrismoak* tarteko. Ondorioetan argitzen duen moduan, kultura ornogabe bat dugu oraindik: “Haragi ainitz, baina hezurrik gabeko bazter-kultura baten aurrean. Hala, euskal ondare kultural eta artistikoa berreskuratu, eta euskaraz aztertzeko lana aldarrikatu gura dugu”. Ezbairik gabe, aipatu lan horren bitartez, esan bezala, zubilan hori egiteaz gain, pelikula bat sortzen den garaia, testuingurua eta begirada hobeto ulertzen laguntzen digu. Eta liburu honekin zinezaleak ez diren irakurle askok ere gozatuko dute XX. mende erdialdeko sasoia eta historiak konprenituz, estilo ezin irakurterrazagoan eta bide batez, gure historia garaikidea eta zinearen garrantziaz jabetzen lagunduz.

Andoni Iturbe Tolosa